



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO
ETA JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko
Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta
Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Sostenibilidad
Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y
Economía Circular

Ebazpena, 2024ko urriaren 8koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Muxika-Ajangizko (Bizkaia) hondakin-uren ponpatze-estazioaren (HUPE) saneamendu-kolektore nagusia eraikitze proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2024ko ekainaren 25ean, Uraren Euskal Agentziak eskaera bat aurkeztu zion ingurumen-organoari, Muxika-Ajangizko (Bizkaia) hondakin-uren ponpatze-estazioaren (HUPE) saneamendu-kolektore nagusia eraikitze proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoa betez.

Ingurumen-organoak abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68.1 artikuluan aipatzen den kontsultazapidea egin zuen, eta horren emaitza espedientearen dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Uraren Euskal Agentziari.

Halaber, espedientearen jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzen jotzen zituen oharak egin ahal izateko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikuluan dionaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen proiektuen ingurumen-ebaluazioaren oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatu eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie II.D eranskinean zerrendatutako proiektu publikoei edo pribatuei. Ebazpen honen helburua abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskinean dago jasota, zehazki 4. puntuan: «*II.E eranskinean jasotako beste proiektu batzuek¹, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuko prozedura gauzatu ondoren ingurumen-organoak hala erabakitzen badu edo sustatzaileak hala eskatzen badu*».

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko.

¹ E8 taldea, 8.g) epigrafe: «Saneamenduko lehen mailako sareak bideratzeko instalazioak, 3 km baino luzeagoak, arazketa-sistemak barne, erabat edo zati batean lurzoru urbanizatugabetik igarotzen badira».



Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela formalki egiaztatu ondoren, ingurumen-organoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egin dezan, pertsona interesdunei eta eragiten dien administrazio publikoei kontsulta egin ondoren.

Azkenik, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean zehaztutako eskakizunak hartu dira kontuan.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – «Muxika-Ajangizko (Bizkaia) hondakin-uren ponpatze-estazioaren (HUPE) saneamendu-kolektore nagusia eraikitzeako proiektuaren» (aurrerantzean, proiektua) ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik, baldintza hauetan:

1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak:

Proiektuaren eremua Muxika, Ajangiz eta Gernika-Lumoko udalerrietan dago, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan, eta Busturialdeko Partzuergoak 2004ko irailaren 29an behin betiko onartutako Urdaibaiko saneamendurako Lurralde Ekintzako Plan (LEP) Integralaren barruan dago (2006ko ekainaren 13ko BAO, 112/2006).

Proiektuaren xedea da (HUPE) Astelarra, Kurtzero eta Ugarte auzoetako hiriko eta industriako hondakin-urak, Inama zenaren lursailei dagozkienak, eta Arane industrialdeko eta Agerre-Untxeka industrialdeko isurketak Ajangizen dagoen ponpatze-estaziora bideratzeko beharrezkoak diren jarduketak definitzea, eta, hala, Muxikako udalerriko hiriko eta industriako hondakin-uren isurketak Lamiarango araztegiarekin lotzea ahalbidetzea. «Muxika-Ajangizko (Bizkaia) hondakin-uren ponpatze-estazioaren (HUPE) saneamendu-kolektore nagusia eraikitzeako proiektua» jasotzen duen jarduketa da Mundakako itsasadarraren ezkeraldeko saneamendu-sare integrala osatzeko egitea falta den bakarra.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.3.2.1 artikuluen arabera, lehentasunezko jarduketa bat da isurketa-puntuak kentzea Urdaibaiko saneamenduko LEP integralean ezarritakoarekin bat etorrira, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuan (N.4) eta Ibai Sarearen Eremuko Babes Eremuetan (B4.1) ingurumena lehengoratzea bultzatzeko.

Proposatutako saneamendu-sistema hodi biltzaile orokor bat da, hainbat adar nagusikoa, eta horiek hondakin-urak auzoetatik Kurtzeroko herrigunera eramaten dituzte. Puntu horretatik, eta behin Oka azpitik zeharkatzean, hodi biltzailearen azken zatiak hondakin-urak ibilguaren eskuinaldetik eramaten ditu Ajangizko ponpatze-estazio eraiki berrira (laster martxan jarriko dute). Arane industrialdeko isurketak ere ponpaketa bidez lotzen dira hodi biltzailearen azken zatiaarekin.

Proiektuak honako tarte hauek ditu: (1) «Kolektore nagusia. Muxika-Ugarte T03», (2) «I-07 Barandika batzea», (3) «I-06 Agerre-Untxeka batzea», (4) «I-04 Kurtzero batzea», (5) «I-05 Bentabarre batzea», (6) «Kolektore nagusia. Bulk. Muxika T02», (7) «Muxikako ponpatze-estazioa», (8) «Kolektore nagusia, Ajangiz-Muxika T01», (9) «I-01 Arane-Industriakoa batzea», (10) «I-03 Atelarra batzea», (11) «I-02 Amona batzea».

Kolektorearen luzera 6.800 metro ingurukoa da. Trazaduraren % 75 zanga bidezkoa da, eta % 25 zulaketa bidezkoa. Ibilbidearen zatirik handienean, kolektoreko ura grabitateak bultzatzen du. «Kolektore nagusia, Ajangiz-Muxika T01» tarteak bulkadazko lehen tarte bat du, eta horrek BI-635 errepidea, trenbidea eta Okaren ibilgua inolako eraginik gabe zeharkatzeko aukera ematen du, eta behin Amona auzoa pasata hodiz aldatzen da. Era berean, «I-01 Arane-Industriakoa eranstea» tarteak bulkada bidezkoa izango da, diseinuaren arabera.

Bi ponpaketa proiektatu dira (Muxika eta Arane), zeinek 450 metroko erabilera-bulkada baitute.

Proiektua gauzatzeko 30.800 m³ lur mugitu behar da guztira. Obra egiteko, ez da aurreikusten lur-mailegurik beharko denik. Hondeaketa-lurren soberakinen bolumena 7.000 m³-koa izango dela kalkulatu da, hoditeriaren «ohea» egiteko behar den harea eta hoditeria bera kontuan hartuta.

Alternatibei dagokienez, 0. alternatiba edo «ez esku-hartzekoa» eta proiektuari erantzuna ematen dioten bi alternatiba hartu dira kontuan: 1. alternatiba: «Mundakako itsasadarraren ezker aldeko kolektore nagusia eraikitzeako proiektuaren soluzioa. Muxika-Gernika tarteak. 2005. urtea»; eta 2. alternatiba: «2005eko proiektuaren egokitzapena», 2005eko proiektuan aurreikusitako trazadurei alternatibak gehitzen dizkiena, egungo egoerako zenbait alderdi eguneratu eta hobetzeko.

0. alternatibak proiektua ez egitea dakar. Hori baztertzeko arrazoiak da Urdaibaiko Saneamenduko LEPak ezarritako zuzentarauak ez betetzea. Gainera, hondakin-urak ibai-sarera zuzenean isurtzen jarraitzeak ekarriko luke ur-masari eta Urdaibaiko Ibai Sareko KBEari modu negatiboan eragiten dien lurrazaleko uren kutsadura ez desagerraraztea.

Bestalde, 1. alternatibak Urdaibaiko saneamendu integraleko TEPearen aurreikusitako trazadura aldatzea dakar, eta jatorrizko trazadurak arazoak sortzen zituen tarte batzuetan eraikuntza-prozedurak egokitzea. 2006. urtean Biosfera Erreserbaren Patronatuko Batzorde Iraunkorrak proiektuaren aldeko txostena eman bazuen ere, proiektuak ez ditu kontuan hartzen ez bisoi europarraren kudeaketa-plana, ez indarrean dagoen EKZPa, bi tresnak gerora onartu baitziren.

Proiektuak garatzen duen 2. alternatibak, egungo egoera kontuan hartuta, eguneratu eta hobetu egiten du 2005eko proposamena, Urdaibaiko Saneamendu Integraleko TEPearen aurreikusi gabeko funtsezko aldaketarik edo saneamendu-hodi berririk sartu gabe.

Proiektuaren hasierako dokumentuak alternatiben ingurumen-konparazioa egiten du hodi-tarteka, eta ondorio hauek ateratzen ditu:

- I-07 Barandika auzoa Ugarte-Muxikako HUPEaren kolektore nagusira (t3) batzea: 2. alternatiban, 1. alternatiban ez bezala, egungo bideak baliatzen dira, lurzoru naturalei eta mahasti-laboreei eragitea saihesteko. 2. alternatiba, Saneamenduko TEPearen aurreikusitako azalerara mugatzen ez bada ere, EKZParen 4.4.4.11 artikularen 5. apartatuko irizpideen arabera da, trantsizioko goi-kategorian dauden pista, bidezidor edo bide-zortasuneko eremuetara egokitzen delako.
- Ugarte eta Muxikako HUPEaren arteko kolektore nagusia: hasiera batean proposatutako trazaduraren eragina murrizteko hainbat aukera aztertu dira (kolektorearen trazadura Ugarte herria eta Kurtzero herrigunea lotzen dituen bidegorri berriaren bera izatea, ibai-sarea zulaketa bidez gurutzatzea edo oinezkoentzako pasabidea aprobetxatzea ibaia gurutzatzeko), eta guztiak baztertu dira, dela arrazoi teknikoengatik, dela administratiboengatik. Nolanahi ere, 2. alternatibak 1.

alternatibaren trazadura berrikusten du, eta, ahal den neurrian, obretako eta ustiapeneko eraginak murrizten ditu.

- Agerre-Untxeta industrialdea.- (I06) Agerre-Untxeta industrialdea T3 kolektore nagusira batzea Ugartetik Muxikako HUPEra: 2. alternatiba, Urdaibaiko Saneamenduko TEPeaurreikusitako lurzoru-erreserbara doitzen ez bada ere, EKZParen 4.4.4.11 artikularen 5. apartatuko irizpideen arabera da, trantsizioko goi-kategorian dauden pista, bidezidor edo bide-zortasuneko eremuetara egokitzen delako. 2. alternatiban, lurzoru urbanizatuari eragiten zaie (bideak), eta, 1. alternatibaren aldean, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak dituztelako edo izan dituztelako inbentarioan jasotako lurzuri gutxiago eragingo zaie.
- Bentabarre eta Kurtzero.- (I05) Bentabarre auzoa eta (I04) Kurtzero auzoa T3 kolektore nagusira batzea Ugartetik Muxikako HUPEra: kontuan hartuta bi trazadurek hiri-lurzoruak zeharkatzen dituztela, ez da alde garrantzitsurik ikusten bi alternatiben artean ingurumenaren ikuspegitik; nolahi ere, saneamendu-sarea Desguaces Cifuentes industria-jarduketaren argunerak hurbiltzeko zabaltzea hobekuntza dela uste da, industria hori saneamendu-sarera batzeko etorkizuneko lanak erraztuko baititu.
- Astelarra.- (I03) Astelarra auzoa Muxikako HUPEra batzea: indusketa-bolumena 1. alternatibakoa baino handiagoa den arren, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2. alternatibak, 1. alternatibarekin alderatuta, ingurumen-hobekuntza nabarmena lortzen du; izan ere, Astelarra auzoko ur beltz guztiak bereizita biltzeko aukera ematen du, eta sarean ez dira sartzen BI-635 errepedearen (Gernikako norabidean) eskuinaldeko etxebizitzetatik eta bideetatik datozen euri-urak, ezta BI-635 errepedetik bertatik datozen euri-urak ere, BI-635 errepedearen (Gernikako norabidean) ezker aldeko sare unitarioan jasotzen direnak.
- Muxikako HUPetik Arane industrialdeko saneamendua batzeko puntura arte. T2 kolektore nagusia: Ingurumenaren gaineko eraginari dagokionez, 1. eta 2. alternatibek oso antzeko trazadura dute. 2. alternatibak, 1. alternatibaren aldean, trazadura zertxobait desberdina du, EKZPan Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua (N4) antolamendu-kategoriarekin sailkatutako lurzoruaren gaineko eragina minimizatzeko. Nolahi ere, 2. alternatibak ez dakar Urdaibaiko Saneamenduko TEPeaurreikusitakoez bestelako eraginik.
- Amona auzoa. (I02) Amona auzoa T2 kolektore nagusira batzea Muxikako HUPearen eta Araneiko saneamendua batzen den lekuaren artean: 1. alternatibak ez du aurreikusten Amona auzoko ur beltzak biltzea, aldiz, 2. alternatibak, Amonako etxebizitzetako ur beltzak biltzea proposatzen du, eta, etxetara iristeko bidetik, saneamendua egitea, T2 kolektore nagusiaren saneamenduaren bulkatzearekin bat egin arte. 2. alternatiba, Urdaibaiko Saneamenduko TEPeaurreikusitako lurzoru-erreserbara doitzen ez bada ere, ingurumen-ikuspegitik, Urdaibaiko EKZParekin bateragarria da, 4.4.4.11 artikularen 5. apartatuko irizpideak betetzen dituelako, trantsizioko goi-kategorian dauden pista, bidezidor edo bide-zortasuneko eremuetara egokitzen denez.
- Arane industrialdea. (I01) Arane industrialdeko saneamendua T1 kolektore nagusira batzea, zeina Ajangizko HUPEarekin lotzen baita: 2. alternatiba eta 1. alternatiba desberdinak dira ponpatze-estazioaren kokapenari dagokionez, eta, beraz, estazio hori hodi biltzaile nagusiarekin lotzen duen hoditeriaren kokapenari dagokionez ere bai. Ingurumenaren ikuspegitik, alternatibak desberdinak dira: 2. alternatibak eragin txikiagoa du *Lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoru inbentarioan* (Ihobe) jasota dauden lursailetan.
- Arane – Ajangizko HUPE. Muxikako HUPetik (T2) datorren kolektoreari jarraipena ematea Ajangizko HUPEarekin (T1). 1. alternatiban, trazadura, tarte batzuk zulaketa bidez egiteko dira, eta beste batzuk, aldiz, zanga bidez. 2. alternatiban, kolektoreak lau tarte izango ditu, guztiak ere ezkutu itxiko zulaketa bidez egingo direnak. Gainera, trazadura, putzuak eta kutxatila urrunago kokatzen ditu Urdaibaiko Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren definitutako Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremutik (N4). Alternatiba horren ingurumen-onurek honako alderdi hauek biltzen dituzte:

- o Larre hezeari eragitea saihesten du; izan ere, gaur egun, ibaiertzeko sahats-zuhaixken formazio bat dago, zeina ibaiertzeko baldintza klimaziko edo azpiklimazikoetarantz eboluzionatzen ari baita. Haltz batzuk ere badaude.
- o Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurumen-kalteberatasun handieneko eremuei gutxiago eragiten die, eta intereseko landarediari ere, trazadura osoan zehar, batez ere 91E0* BIHari, (*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako alubioi-basoak).
- o Ez du eraginik izango bisoi europarraren interes bereziko eremuan Ajangizko HUPEarekiko konexioa baino lehenagoko errekastoa gurutzatzean.
- o Obra gauzatzeko aurreikusitako behin-behineko sarbideek ez dute eraginik izango «Goi-kategoriako nukleoa: Urdaibaiko Ibai Sareko Eremuak» (N4) gisa sailkatutako eremuetan, eta landaretzarik gabeko eremuen zehar joango dira, T1PH3 putzurako behin-behineko obra-sarbidean izan ezik, bertako bide bat aprobetxatuko baita.
- o 1. alternatibaren aldean, zortasuna eta aldi baterako okupazioa nabarmen murriztea dakar (% 25 inguru).

Proiektuaren hasierako dokumentuaren arabera, 2. alternatiba da ingurumen-kalte txikieneko eta indarrean dagoen Urdaibaiko Ibai Sarea KBEa kudeatzeko planaren eta indarreko EKZParen baldintzatzaileekin bateragarritasun handiena duena. Alde horretatik, dokumentazioaren arabera, ekologia- eta paisaia-balio handiko eremua izan arren, kolektorea batez ere errepideen eta auzo-bideen ondotik igarotzen da, eta, beraz, aurreikusitako jarduketek ez dakarte mehatxu nabarmenik ingurunearentzat eta espezieentzat, eta ez dakarte paisaia-aldaketa onartezinik.

Proiektuaren eremua Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan dago, eta baditu bateragarritasunak KBE ES2130006 Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin; era berean, EAEko Azpiegitura Berdeko egiturazko zenbait elementu ditu: biodibertsitate-erreserbak (Urdaibai) eta bilbe urdina (Oka ibaia). Bestalde, Bizkaiko Azpiegitura Berde-Urdinak (Bizkaiko Foru Aldundia) konektore urdin gisa jasotzen ditu Oka ibaia eta haren ibaiadarrak (CCA23), eta indargetze-eremu gisa (AM01) aztergai den gainerako eremua.

Proiektua Okaren unitate hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren barruan (ES017), eta, Oka ibaiaz gain, ibaiadar batzuk ere barne hartzen ditu, hala nola ibilgu hauek: Muxika, Solaburuko erreka, Karkabea, Amunagaerreka, Astobietakarkabea, 4779 izenik gabea, 4774 izenik gabea, eta Maietiko erreka. Oka ibaiaren A ur-masa (ES111R046010 kodea), *natural* gisa kalifikatuta dagoena, egoera ekologiko eta kimiko *Onean* dago (2022ko kanpaina, Uraren Euskal Agentzia). Gainera, proiektuak Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoko (2022-2027) eremu babestuen erregistroko elementu hauek ukitzen ditu: Hornidurarako ur-bilketak dituzten masak (Oka-A masa, ES111R046010 kodea), Interes ekonomikoko espezieak babesteko eremua (Ziprinikola motakoa, Oka-A, PV-OK-045 kodea), mantenugaien ekarpenekiko sentikorrak diren zonetako harguneak (Oka estuarioa, ESCA638 kodea), Gernikako unitate hidrogeologikoaren babes-perimetra (3b zona edo urrutiko kargatze-eremua), ingurune urtarrarekin lotutako habitatak eta espezieak babesteko eremuak (KBE ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea), mehatxatutako espezieen interes bereziko eremuak (bisoi europarra) eta babestutako beste naturagune batzuk (Urdaibaiko Biosferaren Erreserba, PE02 kodea). Bestalde, hoditeria hiri-hornidurarako larrialdiko lurrazaleko hargune batetik hurbil dago (UTMX 525.228, UTM Y 4.792.826). Hoditeriaren trazadurak jabari publiko hidraulikoa eta bere zaintza-eremua ukitzen ditu zenbait tartetan. Jabaria erkidego barneko arroen barruan dago, eta Uraren Euskal Agentziak (URA) du uraren arloko eskumena bertan.

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren kartografiari jarraikiz, aztergai dugun eremuko ibai-sarea, ingurumen-osagaiaren arabera, lehentasunezko natura-intereseko zona gisa sailkatzen da, eta, tarte batzuetan, hirigintza-osagaiaren arabera, landaguneko ibaiertz, eremu

garatu eta hirigintza-garapen berrietarako potentziala duten ibaiertz gisa. Osagai hidraulikoari dagokionez, proiektuko eremuaren inguruan, Oka ibaia 1. mailako tarte da ($10 \text{ km}^2 < C \leq 50 \text{ km}^2$ -ko isuri-arroa), eta Muxika ibaia 0 mailakoa ($1 \text{ km}^2 < C \leq 10 \text{ km}^2$ -ko isuri-arroa).

Ikuspegi hidrogeologikotik, eremua Bizkaiko Sinklinorioko lurpeko ur-masaren gainean dago (ES017MSBT017-005 kodea), interes hidrogeologikoko eremuan, Oka ibaiaren eta bere ibaiadarren alubioi-metakinetan eta EAEko lurpeko ur-masen «Getxo-Bergara Kuaternarioa» sektorean.

Proiektuko eremuak ezaugarri litologiko hauek ditu: ibai-dinamikari lotutako alubioi-metakinak eta, ibai-eraginetik kanpo, pitzaduragatik iragazkortasun txikia duten tuparri-kareharriak, kareharritzko tuparriak eta kalkarenitak. Gainera, aztergai den eremuaren iparraldean, proposatutako hoditeriak jatorri bolkanikoa duten material iragazgaitzak ukitzen ditu (koladak), porositateagatik iragazkortasun txikia dutenak, baita ofitak, buztin nahasiak eta igeltsuak ere, zeinak iragazgaitzak baitira. Planaren xede den eremuan ez dago EAEko Geologia Intereseko Lekuen Inbentarioan (geoEuskadi) sartutako interes geologikoko lekurik.

Eusko Jaurlaritzaren landaredia-kartografiak, proiektuaren inguruan, askotariko unitateak identifikatzen ditu: belardiak eta labore atlantikoak, mahastiak, baratzeak eta fruta-arbolak, baso-landaketak (*Pinus radiata* eta hostozabal batzuk), haltzadi kantauriarra, harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa, elorri zuria edo sasitza, belardi-ihia, zingirak edo urpean gera daitezkeen sakonuneak, bai eta landaredi erruderal nitrofiloa duten hiri-eremuak eta landaredirik gabeko eremuak ere. Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografiaren arabera (2019), 91E0* Ibaiertzeko haltzadia eta sahasia (*Hyperico androsaemi-Alnetum. Salicetum angustifolio-albae*) Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata dago, batez ere Oka ibaiaren ertzetan; gainera, proiektuko eremuan, Oka ibaiaren ibaiadarren tarte batzuetan ere badago. Proiektuaren hasierako dokumentuaren arabera, proiektuak eragindako eremuaren zati handienez bazka-larreak daude, labore atlantikoak, fruta-arbolak, komunitate erruderalak eta sasiak han-hemen dituztenak. Mosaiko horretan, hostozabalen zuhaitzi batzuk ere badaude, batez ere Oka ibaiaren eskuinaldean; haltzadi kantauriarra, berriz, Oka ibaiaren eta haren erreken ertzetan dago. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Astelarra auzoan landaredi erruderal-nitrofiloa dago, eta harizti azidofiloa eta harizti/baso misto atlantiko formazioak daude Oka ibaiaren eskuinaldeko tarte txiki batean, eta Oka ibaiaren eskuinaldeko baso-pistaren ondoan, *Pinus radiata* eta eukalipto landaketak. Bestalde, aurkeztutako dokumentazioak baztertu egiten du, hasiera batean, proiektuak Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutako flora-taxonetako populazioei edo aleei eragingo dienik. Landaredi inbaditzaileari dagokionez, dokumentazioak espezie hauek aipatzen ditu: *Bacharis halimifolia*, *Cortaderia selloana*, *Carpobrotus edulis* eta *Arundo donax*.

Faunari dagokionez, Oka ibaia eta haren ibaiadarrak Bisoi Europarraren (*Mustela lutreola*) Kudeaketa Planaren Interes Berezikoko Eremuetan daude sartuta, *ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren* bidez onartua². Proiektuaren hasierako dokumentuaren arabera, proiektuko eremua fauna-espezie asko dituen lurralde batean kokatuta dago —hegazti migratzaileen eta itsasoko hegaztien presentzia nabarmentzen da—, Urdaibaiko Biosfera Erreserban egon daitezke eta EAEko espezie babestu gehienak. Abifaunari dagokionez, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, udazkenean eta neguan, hauek izaten dira: mokoazabalak, koartza hauskarak, arrano arrantzaleak, kurlinta bekaindunak eta txirritxo handiak. Udaberrian eta udan, aldiz, hauek: antzandobi arruntak, zuhaitz-belatzak, arrano sugezaleak, miruak, lepitzuliak edo lezkariak. Ugaztunei dagokienez, haragijale komunitate hauek izaten dira: azeria, lepazuria, erbinudea, katajineta eta basakatua. Espezie horietako batzuk babestuta daude; esaterako, bisoi europarra, muxar grisa, ipurtatsa eta basakatua. Mikrougaztunei dagokienez, bestak beste, hauek izaten dira: satorra, satitsua, ur-satitsu hankazuria eta Kabrerakoa, sagua, larre-lursagua, arratoi arrunta eta beltza, eta mendebaldeko ur-arratoia eta muxar grisa. Fauna urtarra Oka ibai zatian eta hartara isurtzen diren ibilguetan zehar ageri da, eta hauek nabarmendu behar dira: ibai-amuarraina, mazkarra, aingira eta ezkailua. Erdiko

² 118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa. Horren bidez, Bisoi Europarraren —*Mustela lutreola* (Lineo, 1761)— kudeaketa-plana onartzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu.

zatian, aurrekoez gain, proiektuaren hasierako dokumentuaren arabera, hauek ere izaten dira: barboa, lolina, bokaletako zarboa, korrokoia, platuxa eta aingira. Anfibio- eta narrasti-espezie hauek aipatu behar dira: baso-igel gorria eta iberiarra, bi-biak babestuak, musker berdea, Schreiber muskerra eta zirauna. Azkenik, proiektuaren hasierako dokumentuak matorratza (*Oxygastra curtisii*) aipatzen du, Arriskuan dauden Espezieen EAEko Katalogoan kaltebera gisa sartuta dagoena, eta dentsitate desberdineko populazioak dituen proiektuko trazaduran zehar.

Ez proiektuaren eremuan, ez haren ingurune hurbilean, ez da topatu Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen ezein kudeaketa-planetan sartutako eremurik, ezta abifaunarentzako babes-eremurik ere, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduren arabera (2016ko maiatzaren 23ko EHAA, 96. zk.).

Proposatutako jarduerak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako hainbat udalerritako balio agrologiko handiko lurzoruak ukituko ditu.

Paisaiaren ikuspuntutik, proiektuaren eremua Gernika-Lumoko ikus-arroan dago (241 kodea), «oso arrunta» da. Eremuan ez dago inbentariatutako edo katalogatutako paisaia-baliorik³, eta hurbileko ingurunean ez dago paisaia-mugarririk.

Proiektua gauzatu nahi den eremuaren inguruan kultura-ondareko hainbat kultura-ondasun daude; horietatik, hoditeriaren trazaduratik gertu daudenez, balizko arkeologia gune hauek⁴ nabarmendu behar dira: Olabe errota (D babes maila: *eraikinak eta hari atxikitako instalazioek hartzen duten eremua*) eta Done Bikendi Martiriaren eliza (B babes-maila: *eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanporen dauden ertzetatik neurtuta*). Gainera, trazaduratik gertu, tokiko interesa duten elementu batzuk daude.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, hoditeriaren trazadurak lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruaren inbentarioan jasotako hainbat lurzati zeharkatzen ditu; 48067-00001, 48067-00015, 48067-00005, 48046-00200 eta 48046-00001 kodekoak, hain zuzen ere. Gainera, trazadura 48046-00199, 48046-00002, 48067-00016, 48067-00014, 48067-00013 eta 48067-00012 kodeko lurzatietatik oso hurbil dago, baita 48067-00009 eta 48067-00004 kodekoetatik ere. Inbentariatutako lurzatiei dagokienez, proiektuaren hasierako dokumentuak honako informazio hau ematen du: 48067-00001 kodeko lurzatia 78 metro inguruko zanga bidez zeharkatzea; 48046-00001 kodeko lurzatia, 86 metro inguruko zanga bidez zeharkatzea (lurzatiak Lurzoruaren Kalitate Adierazpena du); 48046-00200 kodeko lurzatia, 16 metroko zanga bidez zeharkatzea; 48067-00005, 87 metroko zanga bidez eta 6 metro inguruko zulaketa bidez zeharkatzea; 48067-00015 kodeko lurzatia, 125 metroko zanga bidez eta 110 metro inguruko zulaketa bidez zeharkatzea (lurzatiak Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena du).

Halaber, hoditeriak 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeek eragindako lursailak ukitzen ditu, baita ibai-jatorriko Muxika (ES017-BIZ-OKA-04) eta Gernika (ES017-BIZ-OKA-01) ibai-eta itsas jatorriko UAHEak ere. Era berean, kolektorearen trazadura ACI2016 Ibaizabal unitate hidrologikoko eta ACI2014 Oka unitate hidrologikoko lehentasunezko fluxu-eremuei gainjartzen zaie hainbatetan. Bestalde, aipatu behar da kolektorearen trazaduraren zati handi bat akuiferoak kutsatzeko arrisku handi eta oso handiko lursailetan barrena doala, eta, tarteren batean, baso-suteen arrisku oso handiko eremuan barrena.

Beste arrisku batzuei dagokienez, ez da identifikatu sismikotasunari, SEVESO establezimenduen gertutasunari⁵ edo salgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arrisku handia duten bideetatik (errepidea edo trena) hurbil egoteari loturiko arriskurik.

³ EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoaren Katalogoa. Eusko Jaurlaritza, 2005.

⁴ Ebazpena, 1997ko maiatzaren 5koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Muxikako (Bizkaia) Balizko Arkeologia Guneen Izendapena egiten dituen.

⁵ Trazadura Maier enpresaren «SEVESO enpresen balizko istripuen eragin-zerrendatik» kanpo dago. Enpresa trazaduraren iparraldean kokatuta dago.

A priori, eta beste batzuk alde batera utzi gabe, proiektua egitetik eratorritako ondorio nagusiak obra fasean gertatuko dira. Kalteak, batez ere, hauek eragingo dituzte: belar-sastrakak kentzeak eta landaredia mozteak, kolektorea ipiniko den zangak egiteko lur-mugimenduek, zulaketa bidez diren tarteen indusketak, trazadura putzuak eta kutxatilak jartzeak eta trazadurak ibai-sarea zeharkatzeak. Horien ondorioz, hauek kaltetzeko arriskua dago: lurzorua, landaredia, Batasunaren intereseko habitata, batez ere lehentasunezko 91E0* habitata —Ibaiertzeko haltzadia eta sahasia (*Hyperico androsaemi-Alnetum. Salicetum angustifolio-albae*)—, fauna, kalitate atmosferikoa, egoera akustikoa eta paisaia. Horietaz gain, hondakinak sortzetik eta istripuzko isuriengatik lurzorua eta urak (lurrazalekoak eta lurpekoak) kutsatzeko arriskua dago, bereziki lurrazaleko ibilguetatik gertu egingo diren lanen ondorioz; ibai-uren kalitatea murriztea eragin ahal izango dute, solido esekiak ugaritzeagatik eta erabilitako makinetan istripuz gertatutako isuriengatik.

Proiektuaren arabera, hondeaketa-lurren soberakin-bolumena 7.000 m³ ingurukoa izango da, eta horiek balorizatzea ezinezkoa balitz, hauen arabera kudeatuko dira: 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegetan utziz ezabatzeko jardura arautzen duena, eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

Trazadura zati batzuek uholde-arriskuko eremuak ukitzen dituztenez, kontuan hartu beharko dira Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren (2022-2027) arau-xedapenetan ezarritakoa eta EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren uholdeen aurkako babesari buruzko araudi espezifikoa.

Proiektuak Natura 2000 Sareko ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEa ukitzen du, eta eremu babestu horretan kontserbatu beharreko habitata edo espezieak kaltetu litzake; beraz, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketak «Proiektuak Natura 2000 Sarean izango dituen ondorioen ebaluazioa» jasoko du berariazko atal batean.

Bestalde, faunari dagokionez, bisoi europarrarentzat interes berezia duen eremuan obrak egitea aurreikusten du proiektuak; beraz, ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren bidez Bizkaian onartutako Kudeaketa Planean xedatutakoa bete beharko da, eta, 10. artikularekin bat etorritik, nahitaezko txostena eskatu beharko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari.

Jarduketa eta nekazaritza-balio handiko lurzorua bateragarri egiteari dagokionez, egin nahi den proiektua «2a Erabilera onargarri» gisa agertzen da lurzoru mota horretan, eta nekazaritza-sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioa egin behar da. Ebaluazio horren arabera, eragina bateragarria da, aplikatutako zuzenketa-neurriak kontuan hartuta.

Kultura-ondareari dagokionez, proiektuko zenbait jarduketek eragina izan dezakete Done Bikendi Martiriaren elizaren balizko arkeologia gunean (B babes-maila: eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanporen dauden ertzetatik neurtuta). Gune hori Muxikako (Bizkaia) Balizko Arkeologia Guneen izendapena egiten duen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenean jasota dago; beraz, hala badagokio, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Azkenik, proiektuaren ondorioz, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasota dauden lurzatiengan hondeaketak egitea aurreikusten da; hori dela eta, ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoa bete beharko da, Lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

Ustiapen fasean, hondakin-uren isurketen bolumena murrizteak ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEaren eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kontserbazio-egoera hobetzen lagunduko du.

2. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren zabalatasuna, xehetasuna eta zehaztasuna

Ingurumen-inpaktuaren azterketak bete egin beharko ditu, gutxieneko edukiei eta egiturari dagokienez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan eta VI. eranskinean xedatzen dituztenak.

Aurrekoari jarraituz, apartatuek eskema metodologiko honi jarraitu behar diote:

1. Proiektuaren deskribapen orokorra eta lurzoruak eta beste natura-baliabide batzuek etorkizunean izango duten erabileraren aurreikuspena. Lur-mugimenduen, sortuko diren hondakin eta isuri moten eta kopuruen eta horien ondoriozko materia- edo energia-emisioen balioespena.
2. Aztertutako alternatiba nagusiak azaltzea, 0 alternatiba barnean hartuta (proiekturik ez egitea, alegia), eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusiak justifikatzea, proiektuak eragindako ingurumen-ondorioak kontuan hartuta.
3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko edo ingurumen-interakzio garrantzitsuenen deskribapena.
4. Inpaktua identifikatzea, kuantifikatzea eta neurtzea: ebaluatuko da ea zer-nolako eragina izan dezakeen proiektuak, zuzenean nahiz zeharka, biztanlerian, giza osasunean, floran, faunan, biodibertsitatean, geodibertsitatean, lurzoruan, zorupean, airean, uretan, faktore klimatikoetan, klima-aldaketan, paisaian eta ondasun materialean (ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa barne), ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta. Halaber, arreta jarriko zaio faktore guztien arteko interakzioari, proiektua egikaritu, ustiatu eta, hala badagokio, eraitsi edo bertan behera uzteko fase guztietan.

Proiektuak Natura 2000 Sareko naturaguneetan izango dituen ondorioak ebaluatzeko berariazko paragrafo bat egongo da, zeinean leku bakoitzeko kontserbazio-helburuak aintzat hartuko baitira. Proiektuak naturagunean izango dituen inpaktuak, Natura 2000 Sareko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena jasoko dira paragrafo horretan.

Natura 2000 Sarearen osotasunari kalte egingo zaiola egiaztatzen bada, sustatzaileak agiri bidez justifikatu beharko du ez dagoela beste alternatibarik eta badaudela lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiak, Natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluen 5., 6. eta 7. apartatuetan aipatzen diren horietakoak, hain zuzen.

Proiektuak, epe luzera, azaleko ur-masa baten aldaketa hidromorfologikoa eragin badezake edo lurpeko ur-masa baten maila aldarazi, eta horrek ur-masa hori egoera onera edo potentzialera iristea eragotz badezake edota ur-masa horren egoera edo potentziala kaskartu badezake, berariazko apartatu bat erantsi beharko da, ukitutako ur-masen egoera edo potentziala definitzen duten kalitate-elementuen gaineko epe luzeko eraginak ebaluatzeko.

5. Proiektuaren kalteberatasuna. Istripu larri edo hondamendi handiren bat gertatzeko arriskuarekiko kaltebera izatearen ondorioz proiektuak ingurumenean sor ditzakeen kalte nabarmenen deskribapena, kasuan kasuko proiektuari dagokiona.
6. Ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak.
7. Ingurumena zaintzeko programa.
8. Azterketaren laburpena eta ondorioak, erraz ulertzeko moduan. Azterketa egitean izandako zailtasun informatibo edo teknikoen txostena, zailtasunik izan bada.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean zehazten dira ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa egiteko baldintzak.

Proposatzen diren jarduketan eta ziurrenik kalteak jasango dituen ingurunearen ezaugarriak direla eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako atalak garatu beharko ditu, ondoren adierazitako zabaltasunarekin eta xehetasun-mailarekin.

2.1. Proiektuaren eta horrekin lotutako ekintzen deskribapena

Ingurumen-inpaktuaren azterketak proiektuaren eta etorkizunean lurzorua eta bestelako natura-baliabideen erabilerari dagokionez aurreikusten diren beharren deskribapena jaso behar du, behar bezain xehea. Halaber, jardueren ondorioz sortuko diren materia- edo energia-hondakin, isuri eta emisio motak eta kopuruak kalkulatu behar ditu, eta, zehazki, ingurumen-baldintzetan eragin garrantzitsuak izan ditzaketen ekintzak identifikatu behar ditu azterketa xehatu baten bitartez, bai exekuzio fasea bai funtzionamendu fasea aintzat hartuta.

Ingurumen-inpaktaren bat izan dezaketen proiektuko ekintza guztiak identifikatu behar dira, babes- eta zuzenketa-neurri egokienak hartzen direla bermatze aldera.

Saihestu eta zuzendu nahi diren kalteak, bai proiektuak proposatutako jardueratik beretik, bai berezkoak zaizkion jarduera osagarri guztietatik etor daitezke, bereziki, honako hauetatik: lehendik dauden sarbideak egokitzeak, obrarako instalazio lagungarriak eta material-hornidurak kokatu eta ezartzeak, erabili beharreko makinengatik, lurrak atera eta pilatzeagatik eta soberakinak kudeatzeak.

Jarduketa horiek guztiak xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko dira, proiektua gauzatzeak ingurumenean izan litzakeen ondorioak kalkulatzeko eta prebentzio- eta zuzenketa-neurri egokiak diseinatu ahal izateko, hartara hautemandako ingurumen-eraginak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatuta.

Aurrekoa kontuan hartuz, eta ebaluatzen ari den proiektuaren ezaugarriak ikusita, xehetasunez azaldu beharko dira alderdi hauek, besteak beste:

- Proiektuaren eraginpeko eremuaren kokalekua eta mugaketa.
- Egungo egoeraren deskribapena.
- Hoditeriaren trazadura aurreikusia eta instalazioen eta elementu erantsien kokapena.
- Lurzorua guztizko azalera-premiak, bai obra fasean (makineria-parkeak, aldi baterako sarbideak, instalazio osagarriak, lehengaien pilaketa) bai ustiapen fasean.
- Saneamendu-hoditeriaren ezaugarriak eta neurriak (hodia).
- Lan-zerrendaren eta hoditeria ezartzeko zangaren neurriak. Behar diren zortasunak.
- Obrarako instalazio osagarrien kokapena: makineria-parkeak, lurrak eta obrarako materialak metatzeko guneak, hormigoi-makinak eta kamioien gupilak garbitzeko guneak, bulegoen eta langileen instalazioak eta abar. Proiektuaren eraginpeko eremuan eta haren ingurune hurbilean dauden zona sentikorrenak aldi baterako instalazio horiek kokatzeko egokiak ez diren eremutzat hartuko dira (ibilguak eta horien ertzak, intereseko landaredia duten eremuak, balizko arkeologia guneak, etab.).
- Jarduketan eta aurreikusitako obra guztien deskribapena. Hoditeriaren trazadura (oinplanoa eta zeharkako eta luzetarako profilak barne). Zanga bidez eta zulaketa bidez egingo diren tartekak zehaztea, eta horiek egiteko metodoa ere, eta zulaketa egiteak eratorritako lohien tratamendua xehatzea.
- Obra eta ustiapen faseetako instalazio erantsiak edo osagarriak lokalizatzea eta deskribatzea. Esparruen ezaugarriak eta horiek gauzatzeko behar diren obrak deskribatzea.
- Ibaiak eta errekek gurutzatzeko lanak zehatz deskribatzea, gurutzatze-puntuen zeharkako profila barne. Eragindako ibaiertzeko landaredi-azalerak. Ibai-ibilguri ez eragiteko aurreikusitako eraikuntza-teknikak; proiektuaren eskalako xehetasun- eta sekzio-planoak, eta erabilitako teknikaren justifikazioa.
- Aurreikusitako fabrika-obrak eta egiturak lokalizatzea eta definitzea (ereduzko sekzioak).
- Aurreikusitako ponpatzeen ezaugarriak, energia-kontsumoak, elektrizitate-harguneak, etab.
- Zerbitzu-zuzkidura: zerbitzu-sareak instalatu edo birjartzearen ondorioz ingurunean eragin negatiboa izan dezaketen jarduketak deskribatzea.
- Beharrezkoa den makineria.
- Lur-mugimenduak:

- o Kuantifikazioa eta balantzeara. Sortutako indusketa-soberakinen kudeaketa eta helmuga. Mailegu-materialen premiak, hala badagokio, haien kuantifikazioa, ezaugarriak eta jatorria.
 - o Indusketak egiteko modua, material-erretiratzearen aurreikuspena eta bitarteko bilguneak.
 - o Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan (Ihobe) sartutako lurzatietan egingo diren lanak zehaztea: azalera, kota, eta indusketa-bolumena eta -sakonera. Lursail horietan aurreikusitako esku-hartze motaren xehetasunak eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea betetzen denaren justifikazioa.
 - o Soberakinak garraiatzeko aukeratu diren ibilbideak, lurrak helmugara eramateak sorraraziko dituen ondorioak aztertuta.
- Ingurumenerako, osasunerako eta ondasun materialetarako arriskutsuak diren jarduketak egiteko aukeren zehaztapena. Ildo horretan, arreta berezia jarriko zaie honako alderdi hauei:
 - o Ingurune hidraulikoan eragin negatiboa izateko arriskua duten jarduketak.
 - o Proiektuak ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEa ukitzea. Aurreikusitako jarduketaren xehetasun nahikoak emango dira ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEak pairatutako eragin negatiboaren zenbatekoa eta garrantzia baloratzeko eta hondar-eraginak zehazteko.
 - o Proiektuak uholde-arriskuko eremuak ukitzea.
 - o Kultura-ondarean eragin negatiboa izan dezaketen jarduketak, batez ere Done Bikendi Martiriaren elizaren balizko arkeologia gunean (B babes-maila: eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanporen dauden ertzetatik neurtuta). Gune hori Muxikako (Bizkaia) Balizko Arkeologia Guneen izendapena egiten duen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenean jasota dago.
 - o Proiektuak bisoi europarrarentzako interes bereziko eremua ukitzea —ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren bidez Bizkaian onartutako Kudeaketa Plana du—.
 - o Landaredi autoktonoari eragin diezaioketen jarduerak, batez ere proiektuko eremuan dauden Batasunaren intereseko habitatei —91E0* habitata Ibaiertzeko haltzadia eta sahasia (*Hyperico androsaemi-Alnetum*. *Salicetum angustifolio-albae*)—.
 - o Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten eremuetako esku-hartzeak.
 - Obretako isurketen zenbatespena (hondakin-urak): izaera eta aurreikusitako kantitateak.
 - Obra fasean sortutako hondakinen zenbatespena eta haien helmuga. Hondakinak prebenitzeko, bereizteko eta biltegitratzeko aurreikusitako neurriak, bai eta hondakinak berrerabiltzeko, balorizatzeko edo ezabatzeke aurreikusitakoak ere.
 - Partikula-emisio atmosferikoak obra fasean. Zehaztu beharko dira zein jarduketatan eta fasetan gerta daitezkeen partikula-materialen emisio atmosferiko handiak.
 - Obra fasearen ezaugarri akustikoak. Zarataren eta bibrazioen maila handiak eragin ditzaketen ekintzak, proiektuaren faseak eta makinak identifikatuko dira.
 - Obra-plana. Obra gauzatzeko epea. Jarduketari aurreikusten zaion iraunaldia. Eraikuntza-sistemaren deskribapena; hala badagokio, aurreikusitako faseak, prozesuak edo sekuentziak xehatuko dira.
 - Obra-aldiko trafikoa, aurreikusten den trafikoaren zenbatespena eta aukeratu diren ibilbideak, obrek egungo trafikoan norainoko eragina izan dezaketen eta nolako eragozpenak erortzen diren zehaztuta.
 - Soberakin berriak biltegitratu beharra aurreikusten bada, horretarako proiektuak otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak agindutakoaren arabera egin beharko dira (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena), eta, beraz, dekretu horren 26. artikuluan zehazten diren ur- eta biodibertsitate-gaietan eskuduntza aitortzen zaien organoen txosten nahitaezko eta lotesleetatik eratorritako emaitza, baldintza eta neurriak ere bildu beharko dira haietan.
 - Proiektuaren fase guztietan sortuko diren hondakinak eta haien helmuga. Obrak egin bitartean eraikitze- eta eraipen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak honako bi xedapen hauen arabera kudeatuko dira: 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa; eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa.

- Obren eraginpeko guneetako paisaia-lehengoratzearen eta -integrazioaren xehetasuna.
- Proiektuaren funtzionamendutik eratorritako jarduketak, inpaktuak sor ditzaketenak, hala nola energia-kontsumoa, zortasunek lurzorua okupatzea, hondakinak eta emisioak sortzea, usainak barne, substantzia arriskutsuak biltegitratzearen ondoriozko arriskuak edo isuriak, edo beste batzuk.

Proiektua behar bezala deskribatzeko beharrezkoak diren xehetasun-planoak aurkeztuko dira, gutxienez honako hauek barne hartuta:

- Kokapen geografikoaren plano georreferentziaduna.
- Egin behar diren jarduketan oinplanoko planoak. Proposatutako jarduketek behar bezala zehaztuta eta bereizita egon behar dute.
- Proiektatutako jarduketan luzetarako eta zeharkako profilak eta ereduazko sekzioak.
- Jarduketan eraginpean dauden zerbitzuak eta haien berrezarpena.
- Drainatze-sarearen planoak (uren bilketa, isurketa-puntuak, etab.).
- Obrako instalazio lagungarrien eta haietarako sarbideen kokapen-planoak.
- Soberakindegia eta horri lotutako azpiegituren kokalekuaren planoak, halakorik badago.
- Paisaia lehengoratzeko eta integrazteko proposamenen planoak.

2.2. Aztertutako alternatibak azaltzea eta egin den hautua justifikatzea

Ingurumen-inpaktuaren azterlanak barne hartu behar du ingurumenerako egokien diren aukera teknikoki bideragarrien azterketa, eta horien konparaziozko balorazioa egin behar du, zero aukera edo ez jardutekoa barne. Proposatutako irtenbidea justifikatu beharko da, eta jarduketan dimentsioari eta hedadurari ez ezik, aipamena egin beharko die dauden irtenbide tekniko guztiei ere.

Alternatiba onenaren hautaketa irizpide anitzeko azterketa global batean oinarritu beharko da, zeinean alderdi ekonomikoak ez ezik, gizarte- eta ingurumen-alorrak ere aintzat hartuko baitira.

Zentzu horretan, natura-ondarearen kontserbazioarekin —bereziki ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEarekin— eta kultura-ondarearen kontserbazioarekin —Olabe errota eta Done Bikendi Martiriaren eliza balizko arkeologia guneak— bateragarrienak diren alternatibak aztertu behar dira. Era berean, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren txostenarekin bat etorritik, lehentasuna emango zaie egungo sare bateratuko tarteari kendu, eta horien ordean sare bereizle bat ipintzen duten alternatibei, Oka ibaiaren eta Gernikako akuiferoaren (Vega III putzua) harguneetan inpaktu eta eragin negatibo txikiagoa badute, bai obra fasean, bai ustiapen fasean.

Alternatiben analisiak barne hartuko du Muxikako hiriko eta industriako hondakin-urak Ajangizko ponpatze-estaziora (HUPE) eramateko proposatutako soluzioaren ingurumen-egokitasunaren justifikazioa. Ibai-sarea gurutzatzeko egituretan aurreikusitako eraikuntza-tekniken ingurumen-egokitasuna justifikatuko da, bereziki, ibaiertzeko landarediaren babesari eta bisoi europarraren habitataren babesari dagokionez eta espeziearen Kudeaketa Planean, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan (2022-2027) eta ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEaren kudeaketa-tresnetan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, proposatutako konponbidearen egokitasuna neurtzeko, kontuan hartuko da Muxikako (Bizkaia) Balizko Arkeologia Guneen izendapena egiten duen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenean eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoa.

Atala bukatzeko, egindako hautua argudiatu beharko da, eta, horretarako, bermatu beharko da hautatutako aukera bideragarria dela bai teknikoki bai ingurumenari dagokionez, eta ahalegina egingo dela ahalik eta eraginik txikiena izan dezan ingurumenaren osagaietan.

2.3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko garrantzitsuenen deskribapena

Atal honetan, ingurunea deskribatuko da, osagai baliotsuenak eta proiektuko ekintzen eragina gehien jasan dezaketenak nabarmenduta. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duena betez, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-baldintzak aztertuko dituen txosten bat ere jaso behar da, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera alderatzeko azterketa bat ere, aztertutako aukera bakoitzaren kasuan.

Ingurumen-inbentarioa atalez atal baloratuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (tokiko mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuen iturri dokumentalak adierazi beharko dira, material bibliografikoak izan, norberak prestatuak edo bestelakoak.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren deskribapena laburra izango da. Saihestu egingo dira ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak, eta kontuan hartuko da proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eraginak ulertzeko behar dena.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Geologia, Geomorfologia eta Lurzoruak
 - Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak.
 - Interes geologikoa edo geomorfologikoa duten leku, gune eta eremuak identifikatzea.
 - Material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen kalteberatasuna. Kalteberatasun handiko eremuen, karga-eremuen, hustulekuen eta abarren identifikazioa, halakorik balego, eta eremu horien eta proiektuaren arteko lotura.
 - Lurzorua kutsatzeko ahalmena duten jarduerak hartu dituzten lurzatiak xehatuko dira. Proiektuaren ondoriozko jarduketak aipatu lurzati horietako batekin bat badatoz, besteak beste, lurzati horren egoera administratiboa deskribatuko da, hala nola lurzoruaren kalitatearen adierazpena duen edo ez.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia.
 - Sare hidrografikoa proiektuaren eragin-eremuan. Proiektuak ukitutako ibilguen eta haien ertzen egoera. Eremuaren egoera zehaztuko da, uholde-arriskuari dagokionez.
 - Akuiferoak eta interes hidrogeologikoko guneak kutsatzeko arriskua. Proiektuaren eremuaren ezaugarri hidrogeologikoak.
 - Uren kalitatea. Proiektuak eragindako zatien egoera ekologikoaren zehaztapena (biologikoa, fisiko-kimikoa eta hidromorfologikoa).
 - Eremuan dauden ur-puntuak. Horien ezaugarrien deskribapena, erabilera adierazita, eta xehetasun-kartografian kokatuz.
 - Proiektua egin nahi den eremuaren inguruan, hiri-hornidurarako hainbat hargune daude; Gernikako unitate hidrogeologikoaren babes-perimetroaz eta Okaren larrialdiko hiri-horniduraren harguneaz gain, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren txostenaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketak Ajangizko Oka ibaiaren mareen mugako presa txikian, Ajangizen, etorkizunean larrialdiko hargunea egitea jasoko du.

- Zonaldean dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketak xehetasunez zehaztuko ditu, azterketa zehatz baten bidez, proiektuaren jarduketak eragindako Batasunaren intereseko habitaten eta landare autoktonoen eta intereseko landareen masen azalera, haien osaera, kontserbazio-egoera eta balio ekologikoa. Prospekzioak egin beharko dira flora mehatxatua eta flora exotiko inbaditzailea badagoen ala ez zehazteko.
- Proiektua egin nahi den eremuak bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) Kudeaketa Planak barne hartutako interes bereziko eremua ukitzen du; espezie horrentzat edo mehatxatutako beste batzuentzat intereseko enklabeen (hazkuntza, babesleku eta elikadura eremuak) presentzia baietsi edo ezetsi behar da. Faunaren diagnostikoa osatzeko, fauna-talde guztiak barne hartzen dituzten azterketak egin beharko dira, proiektuaren eremuan dauden espezieei eta espazioaren erabilerari buruzko informazio zehatza lortzeko. Bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kudeaketa-planeari xedatutakoa bete beharko da.
- Proiektua ezarriko den eremua bat dator Urdaibaiko Ibai-Sarea kontserbazio bereziko eremuarekin (KBE ES2130006) (358/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez kontserbazio bereziko eremu izendatzen baitira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren garrantzizko 4 leku, eta KBE horien eta Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak onartzen baitira); eremu horrek Oka ibaia eta haren adarrak barne hartzen ditu. Espazioa kontserbatzeko helburuak zehaztuko dira eta egiaztatuko da proposatutako jarduketak bat datozela espazio hori kudeatzeko tresnetan xedatutakoarekin.
- Kalteak jasango dituzten landare- eta animalia-komunitateen azterketak honako alderdi hauek barne hartuko ditu:
 - Kontserbazio-maila. Egiturazko konplexutasuna. Landaretza naturala bertako espezieen ikuspuntutik eta haien estaldura-mailaren ikuspuntutik deskribatu beharko da.
 - Espezie katalogatuen eta babestuen presentzia.
 - Landare exotiko inbaditzaileen presentzia.
 - Beste alderdi sentikor batzuk.
- Paisaia
 - Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatea eta hauskortasuna aztertuko dira.
- Kultura-ondarea
 - Jarduketa-eremuaren inguruan dauden ondare arkitektonikoko eta arkeologikoko elementuen deskribapena egingo da.
- Egoera akustikoa
 - Obren ondorioak eta proiektuaren ustiapenarenak (zarata eta bibrazioak) pairatu ditzaketen eraikuntzen tipologia zehaztuko da (etxebizitzak, industriak, ikastetxeak). Halaber, eremuak gaur egun duen egoera akustikoa balioetsiko da.
- Dokumentazio grafikoa

- Jarduketa-gunearen ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografiko georreferentziatuak jaso beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko da.
- Proiektua egin nahi den eremuaren eta aurreikusitako jardueren kartografiaren kopia gehigarria erantsiko da, shape formatuan, eta Eusko Jaurlaritzak egindako *Ingurumen-ebaluazioko prozedurak izapidetzean dokumentazioa aurkezteko gidaren* jarraibideen arabera aurkeztuko da.

2.4.- Inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioko elementuen eta eraginak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren ondorio izango dira. Kaltearen garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka eragingo dien baliabideen kalitatea eta kantitatea.

Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta, horretarako, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu horretan, funtsean, egungo egoera eta etorkizuneko konparatuko dira, zuzenketa-neurriak erabiliz.

Ingurumen-inpaktuak baloratzeko erabilitako metodologiak eta zenbatespen-prozesuak zehaztuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartuta dauden arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren araberrako muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Bereziki, eta beste batzuk alde batera utzi gabe, proiektuaren ezaugarriak eta eragindako ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumen-inpaktuaren azterketak bereziki balioetsi beharko ditu honako ingurumen-inpaktu hauek: lurzorua okupazioarekin lotutakoak eta eremu babestuetan eragindakoak (Natura 2000 Sarea eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba), eta natura-baliabideetan, arriskuan dagoen faunan (bisoi europarra), intereseko landaredian (batez ere ibaiertzeko landaredian eta Batasunaren intereseko habitatetan —91E0* habitata Ibaiertzeko haltzadia eta sahasia (*Hyperico androsaemi-Alnetum. Salicetum angustifolio-albae*)—), lurrazaleko uretan, kultura-ondarean, egoera akustikoan eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan eragindakoak.

Bestalde, baliteke proiektuaren ondorioz indusketa-soberakinak sortzea, eta, beraz, ingurumenaren aldetik ebaluatu behar dira horien ondorioak.

Obra fasean, gainera, hots-kutsadurak eta hondakinen, isurien eta emisioen kudeaketa egokiak eragin ditzaketen inpaktuak balioetsiko dira.

Proiektuak eragindako eremuaren eta aurreikusitako jarduketaren irudikapen kartografikoa jasoko da, behar bezala georreferentziatua.

Proiektuak Natura 2000 Sareko KBE ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarean izango dituen zuzeneko eta zeharkako ondorioak ebaluatzeko berariazko paragrafo bat gaineratuko da ingurumen-inpaktuaren azterketan, zeinean leku bakoitzeko kontserbazio-helburuak aintzat hartuko baitira. Bertan, aurreikusitako inpaktuak, prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena jasoko dira. Horretarako, Europako Batzordeak argitaratutako gida tekniko erabilgarriak erabiltzea gomendatzen da. Espazio babestuan dauden beste proiektu batzuekin bat etortzeagatik sor litezkeen metatze- eta sinergia-ondorioak ere hartuko dira kontuan.

Natura 2000 Sarearen osotasunari kalte egingo zaiola egiaztatzen bada, sustatzaileak agiri bidez justifikatu beharko du ez dagoela beste aukerarik eta badaudela lehen mailako interes publikoko

ezinbesteko arrazoiak, Natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluen 5., 6. eta 7. apartatuetan aipatzen diren horietakoak, hain zuzen.

Era berean, ingurumen-inpaktuaren azterketak aztertu beharko du proiektuak proposatutako jarduketak bat datozela Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legearekin eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planarekin (irailaren 27ko 139/2016 Legearen bidez onartua).

Bestalde, ingurumen-inpaktuaren azterketak kontuan izango ditu lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiei eragindako ondorioetatik eratorritako arriskuak; alde horretatik, proiektuak inbentario horretan aipatutako 48067-00001, 48067-00015, 48067-00005, 48046-00200 eta 48046-00001 kodeko kokapenak ukitzen ditu. Gainera, trazadura 48046-00199, 48046-00002, 48067-00016, 48067-00014, 48067-00013 eta 48067-00012 kodeko lurzatietatik oso hurbil dago, baita 48067-00009 eta 48067-00004 kodekoetatik ere.

Era berean, akuiferoen kutsatzeko arrisku handia eta oso handia duten eremuak ukitzen ditu proiektuak, eta, beraz, ingurumen-inpaktuaren azterketak baloratu beharko du zer eragin negatibo izan dezakeen proiektuak Oka ibaiaren eta haren ibaiadarren interes hidrogeologikoko eremuan.

Azkenik, kultura-ondarea kaltetzeko arriskuari helduko zaio, kontuan hartuta proiektua egin den nahi den eremutik hurbil dagoela Done Bikendi Martiriaren eliza balizko arkeologia gunea, zeinaren babes-eremua Muxikako (Bizkaia) Balizko Arkeologia Guneen Izendapena egiten duen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez zehazten baita (B babes-maila: *eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanporen dauden ertzetatik neurtuta*).

Baloratu egin beharko da proiektuak, orobat, klima-aldaketari dagokionez izan dezakeen efektua, eta zer eragin izango duen proiektuak giza osasunaren eta lasaitasun publikoko baldintzen gainean.

Zaratarri dagokionez, obrak 6 hilabete baino gehiago luzatuko direla aurreikusten bada, obren eragin akustikoaren balorazioa gehituko da, dagozkion zuzenketa-neurriak zehazteko. Aintzat hartu beharko dira obrako makineriaren potentzia akustikoa, zonakatze akustikoa eta gune bakoitzean kalitate akustikoari dagokionez ezarritako helburuak. Inpaktu akustikoaren azterketan zuzenketa-neurriak zehaztuko dira, eta hor aztertuko da zer onura akustiko lortu nahi den zuzenketa-neurri horien bitartez, eremu akustikoetako eta eraikin sentikorretako zarata-maila murrizteari dagokionez.

Bi azterketak egiteko erreferentziazko metodologia dokumentu hauek ezarriko dute: 1513/2005 Errege Dekretuak, abenduaren 16koak, zaratarri buruzko 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, garatzen duenak, ingurumenaren zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez; eta 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, EAEko Hots-kutsadurari buruzkoak. Azterketa bietan kalteak grafikoki adieraziko dituzten mapak barne hartu beharko dira, eta horien emaitzek aukera eman beharko dute eremuan hots-kutsadura mailen balorazioa egiteko.

2.5. Proiektuaren kalteberatasuna

Istripu larriak edo hondamendi handiak gertatzeko arriskua dela-eta proiektuak ingurumeneari eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak deskribatu, analizatu, eta, hala badagokio, kuantifikatuko dira, baita istripu edo hondamendi horiek gertatzeko arriskua ere. Helburu hori lortze aldera, proiektuari aplikatu beharreko arauetara jarraituz egindako arrisku-ebaluazioen bitartez lortutako informazioa erabili ahal izango da.

Horrelako ezbeharrek ingurumeneari sortzen dituzten kalte adierazgarriak prebenitzeko eta arintzeko aurreikusitako neurri guztiak bildu behar dira deskribapenean, baita halako larrialdietarako proposatzen diren prestakuntzari eta erantzunari buruzko xehetasunak ere.

Irizten bada atal hori ez zaiola aplikagarria proiektuari, justifikazio-txostena erantsi beharko da.

2.6. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamena

Ingurumen-inpaktuaren azterketan, ingurunekeko elementu bakoitzean ingurumen-ondorio negatibo esanguratsuak murrizteko zer neurri aurreikusten diren adierazi beharko da. Zuzenketa-neurriak espero diren inpaktuen ezaugarrien arabera proposatu eta doituko dira.

Inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko pentsatutako ekintza bakoitza xehetasunez identifikatu eta deskribatuko da, bai ekintzaren diseinu eta kokapenari dagokionez, baita kutsaduraren aurkako prozedurei, arazketari eta ingurumenaren babes generikoari dagokionez ere. Deskribapenak xehetasun-maila nahikoa izan beharko du hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatzeko, exekuzio-proiektuek izan ohi dituzten apartatuak barne hartuta: memoria, neurketen koadroa, obra-unitateen definizioa, aurreikusitako neurri bakoitzari dagokion aurrekontuko partida eta preskripzio teknikoaren agiria, bai eta hori guztia hobeto ulertzeko behar den kartografia ere. Neurriak obra-planeari txertatuko dira, eta neurriak gauzatzeko egutegi koordinatu bat proposatuko da.

Zehazki, eta ezertan galarazi gabe aurreko apartatuetan eskatutako analisien emaitzen ondorioz sartu beharko liratekeen beste neurri batzuk, prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurrien proiektuak neurri hauek hartu eta garatuko ditu, besteak beste:

Natura-ondarea babesteko neurriak

- ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEa eta bertako fauna babesteko neurriak, espazioaren organo kudeatzailearen jarraibideen arabera.
- Proiektuaren eragin-eremua kontrolatzeko neurriak, hala nola obrek eragindako eremua balizatzea, sarbide osagarriak, pilaketak eta abar. Horrela, obrak ez ditu gaindituko jarduketaren mugak.
- Oka ibaiko eta haren ibaiadarretako uren kalitatea babesteko neurriak, lanek horiengan kalterik ez izateko; izan ere, baliteke solido esekiak eta beste kutsatzaile batzuk iristea obretatik, bai eta istripuzko isurketen ondorioz ere. Ibilgura istripuz isuriz gero jarduteko larrialdi-neurriak definituko dira.
- Landaredia autoktonoa babesteko neurriak. Oro har, zuhaitzen eta berdeguneen gaineko erasana minimizatu behar da. Hala badagokio, kendu beharreko zuhaitzak seinaleztatzeko aurreikuspena, ezinbesteko gutxienekoa izan dadin.
- Bisoi europarrarentzako neurri espezifikoak, bere kudeaketa-planarekin —obra-egutegia doitzea, ibaiertzak lehengoratzeta, etab.— eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jarraibideekin bat etorritik. Bizkaiko Foru Aldundiak, espeziearen kudeaketaz eta bisoi europarraren kudeaketa-plana aplikatzeaz arduratzen den organoa den aldetik, beharrezkotzat jotzen dituen neurri guztiak ezarri ahal izango ditu —bai obrak diseinatzeari bai exekutatzeari dagokienez—, espezie horren babesa bermatzeko. Horri dagokionez, kontuan izan beharko da, Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren 9. artikularekin bat etorritik, bisoi europarraren kudeaketa-planaren interes bereziko eremuekin bat datozen jarduketek Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren Ingurumeneko zuzendari nagusiaren alde aurreko baimena beharko dutela.
- Landare aloktono inbaditzaileak ezabatzeko eta kontrolatzeko neurriak, lurak mugitu diren eta landaretzarik gabe gelditu diren eremuetan landare-espezie inbaditzaileak sar ez daitezen.

Uholde-arriskura bideratutako neurriak

- Proiektuko jarduketek 2022-2027 aldirako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren arabera uholde-arriskua duten eremuak kudeatzeko ezarritako irizpideak bete beharko dituzte; era berean, kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean uholdeen aurka babesteko ezarritako araudi espezifikoak.

Sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak

- Sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak. Irizpide orokor gisa, eraikuntza-jarduketa osoak jabari publiko hidraulikoko zortasun-eremua zaindu beharko du, eta eraikuntza-prozesuan ibilguei, ur-bazterrei eta uren kalitateari inolako kalterik ez eragitea bermatu.
- Biltegitratze-guneak eta eremu osagarriak behar bezala kokatzea, eta makineria-parkeak eta instalazio osagarriak egokitzeko neurriak (iragazgaiztea, drainatze-sarea, etab.), ibai-sareari zuzenean edo jariatze-uren bidez ez eragiteko.
- Sare hidrologikoa zeharkatzeko puntuetan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren 2022-2027 Araudian xedatutakoa beteko da —urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartu zen (I. eranskina. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren Xedapen Arauemaileak)—.
- Obra-guneetan, eta batez ere indusketa-lanetako materialekin kargatutako kamioiek ibili behar dutela aurreikusten den irteeretan, ibilgailuak garbitzeko instalazioak ipini beharko dira dekantazio-putzuetara konektatuta. Azterketak azaldu beharko ditu elementu horien ezaugarriak, kokapen zehatza eta neurrien justifikazioa.

Hondakinak kudeatzeko neurriak

- Obra fasean zehar hondakinak kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegitratze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzoruetan lanak eginez gero, babes- eta kudeaketa-neurriak. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak xedatutakoaren arabera lurzoru kutsatuen alorrean aplikatzekoak diren betebeharrak betetzea.

Lur-soberakinen kudeaketak eragindako kalteak murrizteko neurriak

- Lur-soberakinen kudeatzeko soberakinen biltegi berriak egin behar izanez gero, neurri espezifikoak proposatu beharko dira horietatik eratorritako ingurumen-eraginak murrizteko, bereziki uren kalitatean izan ditzakeen kalteak saihesteko edo minimizatzeko (solidoak atxikitze gailuak...), intereseko landarediari eragindako kalteak murrizteko, edo inguruko biztanleek ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.

Ekonomia zirkularrarekin lotutako neurriak

- Honako hauekin lotuta dauden ekonomia zirkularreko neurriak sartzeari: obran landare-lurra kudeatzea eta berrerabiltzea, materialen kontsumoaren inpaktua minimizatzea (lurren balantzea/oreka, etab.), material jasangarriak, birziklagarriak eta jatorri naturalekoak erabiltzea.

Kultura-ondarea babesteko neurriak

- Hoditeriaren trazaduraren inguruko balizko arkeologia guneak babesteko neurriak definituko dira; zentzu horretan, Done Bikendi Martiriaren elizari dagokionez (*B babes-maila: eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanporen dauden ertzetatik neurtuta*), orubearen balio

arkeologikoari eta obra-proiektuak izan dezakeen eraginari buruzko azterlan bat aurkeztuko da, eta Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 65. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

- Proiektuak aurreikusitako lur-mugimenduei dagokienez, aztarna arkeologikoren bat agertzen bada, berehala geldiaraziko da obra, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritzari edo Muxikako Udalari jakinaraziko zaio, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 74. artikuluan adierazten denez.

Herritarrei eragindako kalteak eta eragozpenak murrizteko neurriak

- Atmosferaren kalitatea babesteko neurrien proposamena, obra fasean hautsa eta usainak aireratzea barne.
- Obrak egin bitartean istripu larriak gertatzen direnean eta bertako biztanleei eragiten dienean jarduteko protokoloak.
- Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatzea, istripuz isurketarik ez egiteko eta jarduketaren ondorioz herritarren osasunean izan daitezkeen eraginak minimizatzeko, batez ere obren fasean.

Paisaia-integraziorako eta eragindako lekuak lehengoratzeko neurriak

- Ekologia- eta paisaia-integrazioko proiektu bat idatziko da, eta hura maila guztietan lotuko zaio proiektuari (aurrekontua barne). Proiektua egikaritzen den gune guztietan aplikatu beharko da proiektu hori, eta honako gai hauek zehaztuko ditu:
 - o Eremu edo gune bakoitzeko lehengoratze-prozesuetan erabili beharreko espezieak, landaketaren dentsitatea, aleen tamaina, ereintzen edo hidroereintzen konposizioa, neurketak eta proposatutako jarduketak gauzatzeko eta landatutako eremuen mantentze-lanak bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-partidak.
 - o Landareztatze proposamena, gune bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.
 - o Aurreikusitako mantentze-lanak: hutsarteak, ureztatzeak eta, hala badagokio, ongarriketak berritzea, besteak beste. Gomendatzen da mantentze-lan horiek obrak egin eta gutxienez 3 urtez luzatzea.

Ibilguetatik gertu dauden espazioetan, ur-bazterreko landarediaren berezko espezie autoktonoak erabiliko dira, eta lehengoratze-lanetan bisoi europarraren habitataren berezko ezaugarriak hartuko dira kontuan. Amaieran, lehengoratutako azalera, gutxienez, obrak exekutatzean ibaiertzean kendutako landarediaren azaleraren berdina izango da.

Proiektuak ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEa ukitzen duenez, hala badagokio, eta espazioa kudeatzen duen organoaren jarraibideak kontuan hartuta, konpentsazio-neurriak ezarriko dira Natura 2000 Sarean sortutako hondar-inpaktuak arintzeko.

- Proiektuak exekuzio-proiektu ororen apartatuak izango ditu: memoria (proposatutako tekniken justifikazioa, lursaila egokitzeko lanak, landare-lurra bereizita erretiratu eta hedatzea, hautatutako espezieak, populazio-dentsitatea, landare-tipologia, hidroereiteen osaera eta dosiak eta mantentze-eragiketak), neurketen taula, obra-unitateen definizioa, preskripzio teknikoen agiria eta aurrekontu banakatua. Gainera, lehengoratze-jarduketaren kronograma ere aurkeztu beharko da.
- Eremuan espezie inbaditzaileak daudenez, landareztatze-proiektuaren barnean zenbait neurri txertatuko dira flora aloktonoaren inbasio-prozesuak ekiditeko, kontuan hartuz lur-mugimenduek erraztu dezaketela landare mota horien zabalkundea.

- Kartografia erantsiko da, proiektu-eskalan; bertan zehaztu eta irudikatuko dira landareztatuko diren eremuak, kasu bakoitzean aurreikusi den tratamendua adierazita (ereintzak, landaketak, etab.).

2.7. Ingurumena zaintzeko programa

Ingurumena zaintzeko programa bat eratuko da. Programa horren helburu nagusia ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak beteko direla bermatuko duen sistema bat ezartzea izango da, bertan adierazitako jarraibideekin eta zuzenketa-neurriekin batera.

Programaren helburuak zehaztuko dira eta, helburu bakoitzaren kasuan, jaso beharreko datuak, erabili beharreko metodologia, neurketa-puntuak (puntu horiek zehazki non dauden jakiteko planoko kokapena eta krokisa barne) eta neurketen maiztasuna ere adieraziko dira.

Kalitate-helburuak legediak edo oro har onartuta dauden azterketa teknikoek zehazten dituzten muga-balioen edo gida-balioen arabekoak izango dira. Hala ere, proiektuaren eraginpeko eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio are zorrotzagoak ezarri beharko dira, hala egitea beharrezkoa den parametroetan.

Era berean, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eraginaren jarraipen egokia egin ahal izateko.

Proiektuari eta proiektuak ingurunean duen eraginari buruz jasotako datuen ondorioz beharrezkoak diren kontrolez gain, programak ondoren adierazitako kontrolak izan beharko ditu:

- Obren okupazio-mugen kontrola
- Obrako jardunbide egokien kontrola, hauek saihesteko: hondakin-isurketak, olio-jarioen, zementu-esneen eta lur-mugimenduen ondorioz lurzorua edo ura kutsatzea, eta biztanleei zarataren, hautsaren eta abarren ondorioz eragozpenak sortzea.
- Lur-mugimenduen eta indusketa-materialen kudeaketaren kontrola.
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan induskatzearen kontrola.
- Landarediaren gaineko eraginaren kontrola.
- Mehatxatutako faunaren gaineko afekzioen kontrola.
- Kultura-ondarearen gaineko eraginaren kontrola.
- Obrak egin bitartean uren kalitatearen kontrola.
- Ur-ibilguen eta ur-bazterreko landarediaren gaineko afekzioen kontrola.
- Obra faseko zarata eta bibrazioen kontrola.
- Sortutako hondakinen kudeaketaren kontrola.
- Obren eraginpeko zona guztietako lehengoratzeko-lanen eta horien arrakastaren kontrola.
- Obretan eta ustiapenean proposatutako jarduketak Natura 2000 Sareko ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea KBEa kudeatzeko tresnetan xedatutakoarekin bat etortzearen kontrola.
- Aurreikusitako prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko beste kontrol batzuk.

Kontrol-puntuak kartografikoki islatu beharko dira.

2.8. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren laburpena

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta haren ondorioen laburpen-dokumentu bat idatzi beharko da, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak VI. eranskinean ezarritako ezaugarriak dituen. Dokumentuan labur-labur eta jendeak ulertzeko moduan bildu beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak ekiditeko edo minimizatzeke proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, jendeari informazioa emateko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean aurkitutako zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 77. artikuluan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 39.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organoari bidaliko dizkio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoa, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta jaso diren alegazio eta txostenen ingurumen-edukiari buruz sustatzaileak egin dituen oharren dokumentu bat, azaltzen duena nola hartu diren kontuan oharrok.

Dokumentazioa formatu digitalean eta xede horretarako egin diren jarraibideak betez aurkeztu behar da. Jarraibideak Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean daude eskuragarri (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/ingurumen-ebaluazioa/>), atal honetan: Arloak > Ingurumen Ebaluazioa > Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeke prozedura izapidetzea > Eskaerak aurkeztea.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkezpen-gidaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gida ingurumen-organoaren web-orrian dago eskuragarri, esteka honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria lau urtetan izango da baliozkoa, sustatzaileari jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera. Dokumentuak balioa galduko du epe hori igaro eta organo substantiboari aurkeztu ez bazaio ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasteko.

Hirugarrena. – Ebazpen honen edukia Uraren Euskal Agentziari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 8a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Javier Aguirre Orcajo